



Arartekoaren 2020R-1450-17 Ebazpena, 2020ko irailaren 30ekoa Horren bidez, Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen zaio berrius dezala diru-sarrerak bermatzeko errentaren kontzeptu gisa prestazio ekonomikoak itzultzeko betebeharra, dagozkion legezko ondorioekin, hautemandako gabeziak kontuan hartuta eta prestazioak erreklamatzeko prozedura erreklamazio-ekintzaren preskripzio-epaaren ondoren hasi delako.

Aurrekariak

1. Pertsona batek kexa bat aurkeztu du; bertan, Arartekoaren esku-hartzea eskatu du Lanbidek 2012ko urtarriletik 2012ko urrira bitarteko aldiari dagozkion prestazioen harira egindako erreklamazioa dela eta.

Kexagileak adierazi duenaren arabera, erakunde honek 3.185,10 € itzuli behar dituela adierazi du 2017ko urriaren 6ko ebazpenaren bidez, eta honako arrazoi hau adierazi du: *“Dagokion modalitatean, Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular gisa dituen betebeharrak, eta indarreko arauen arabera aplikatu beharrekoak diren guztiak ez betetzea. Diru-sarrerak bermatzeko errenta bizikidetza unitateko kide guztien oinarritzko premiak betetzera ez bideratzea, ezta, hala ere badagokio, haien gizarteratze- eta/edo laneratze-prozesuak eragindako gastuak ez estaltzera. Ebazpena amaitu aurretik baita prestazioaren diru-sarrera bitartean.” (sic)*

Kexagileak jakinarazi zuen 2017ko maiatzaren 22an berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuela, baina gerora egiaztatu da erantzun zuen izapidea alegazioena zela, prestazioak erreklamatzeko prozeduraren hasieraren jakinarazpena jaso ondoren. Horren bidez, bizikidetza unitateko kideetako biren osasun egoeraren inguruko alegazioak egin zituen, eta horri buruzko dokumentazioa aurkeztu zuen. Kexagilea eriondo izan zen 2012an, ebakuntza bat egin zioten-eta (mc lean distal motatako by pass gastrikoa eta laparotomia bidezko kolezistektomia), eta adierazi du uneoro eman ziola bere egoeraren berri Lanbideri. Gizarteratze aktiborako hitzarmena 2020ko irailean sinatu zuela egiaztatu du. Kexagilearen senarrak,(...)(e)k, ezgaitasun bat du, eta baliaezintasuneko kotizazio gabeko pentsioa jasotzen zuen. Beraz, lana bilatzeko betebeharretik salbuetsita zegoen. (...) semeari dagokionez, aipatu du lanerako prestatzeko eta lana bilatzeko prozesuetan parte hartu zuela, eta honek ere 2012an gizarteratzeko hitzarmena sinatu zuela.

Gainera, jakinarazi du 2012ko urrian diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa jasotzeko eskubidea eten zitzaiola, arrazoi berberengatik. Horren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen eta kexa aurkeztu zuen Arartekoan (erreferentzia: 2550/2013/QC). Lanbidek berraztertze errekurtsoa baietsi zuen, eta eskubidea etenda egon zen aldian jaso ez zituen prestazioak ordaindu zizkion.





2. Arartekoak, kexa izapidetzeko onartu ondoren, aldez aurretik, zenbait gogoeta helarazi zizkion aplikatu beharreko araudiari buruz: diru-sarrerak bermatzeko errenta arautzeari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 58. artikulua; etxebizitzaren prestazio osagarriari buruzko urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuaren 36. artikulua; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren antolaketa-arauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 47. artikulua (irailaren 29ko 3/2006 Legeak aldatu zuena); era berean, Arartekoaren urtarrilaren 2ko 1/2014 gomendio orokorra gogorarazi zuen. *Lanbidek arrazoitu egin behar ditu eskubideak mugatzen dituzten ebazpenak*

Zehazki, gai hauen inguruko informazioa eskatu genion:

- a) Ea betebeharren prestazioak zuzentzen dituen araubide juridikoa kontuan hartu zen.
 - b) Ea zer arrazoi zirela-eta eskatu zitzaion aipatutako zenbatekoa itzul zezan; hau da, Lanbideren ustez, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrek dituzten eginbeharrak ez betetzeak dakarten jokabideen inguruko azalpena: inklusiorako hitzarmen bat sinatzeari uko egitea, interesdunek eskura dituzten baliabideak modu arduratsuan ez kudeatzea, eta diru-sarrerak bermatzeko errenta oinarrizko premiak asetzea ez den beste helburu baterako erabiltzea
 - c) 2012ko azaroan diru-sarrerak bermatzeko errenta eteteko prozedura abiaraztea erabaki izanaren inguruko informazioa, eta berraztertze errekurtsoa ezestea erabaki izanari buruzko azalpena.
 - d) Kexagileari behar bezala erantzuteko gauzatu zituen edo, aurreikuspenei jarraiki, gauzatuko zituen jardunen gaineko argibideak
3. Lanbidek Arartekoari erantzun zion, zuzendari nagusiaren txosten baten bidez, eta jakinarazi zion egindako aukerako berraztertze errekurtsoa baiestekoa izan zela, eta, beraz, zorra 8.699,00 eurotik 3.185,1 eurora jaitsi zela, baiesteko ebazpena identifikatzen zuen erreferentziarik eman gabe. Gaineratu zuen erreklamazioa aurkeztu zela ez zelako zenbatu 10 hilabetez jaso zuen kotizazio gabeko prestazioa.
4. Arartekoak, jasotako erantzuna aztertu ondoren, bidalitako informazioa zabaltzeko eskatu zuen, ez zitzaielako erantzun lankidetzak-eskaeraren a) eta c) galderei.

Lanbidek Arartekoari erantzun dio eta lehenengo txostenean igorritako informazioa errepikatu dio, eta honako hau gaineratu du: *“2017ko maiatzaren 22ko errekurtsorik ez dago jasota, eta eskatzaileak aurkeztutako gaineko errekurtsoak ebatzita daude, aurtengo ekainean ezetsi baitira. Bestalde, preskripzioa 2014an eten zen, zorraren jakinarazpena bidali zitzaionean, eta interesdunak jaso zuen jakinarazpen hori, 2014ko irailaren 25eko erregistro batean jasota baitago harekiko desadostasuna adierazi zuela.”*





5. Lehen aipatu bezala, kexaren sustatzaileak 2550/2013/QC erreferentzia duen kexa bat aurkeztu zuen lehenago Arartekoan, Lanbidek 2012ko azaroaren 26an emandako ebazpenaren bidez diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea eten zitzaiolako (2012/REV/015923 jatorrizko espedientea). Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea honako arrazoi hauengatik eten da:

“Uko egitea gizarteratzeko hitzarmena sinatzeari.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta bizikidetzta-unitateko kide guztien oinarrizko premiak betetzera ez bideratzea, ezta, hala ere badagokio, haien gizarteratze-eta/edo laneratze-prozesuak eragindako gastuak ez estaltzera.

Ebazpena amaitu aurretik baita prestazioaren diru-sarrera bitartean, titularrari edo bizikidetzta-unitateko edozein kideri legokiokkeen eskubide edo prestazio ekonomiko oro ez baliatzea.

Eskura dituzten baliabidek arduraz administratzea, eta arretaz jardutea egoera ekonomikoa edo bazterkeria egoera larriagoa bihur ez dadin.

Lanbiden eskatzaile gisa inskribatuta egotetik salbuetsita ez dagoen/dauden bizikidetzta-unitateko kide bat edo gehiago Lanbiden eskatzaile gisa inskribatuta ez egotea.

Hitzarmen arau-emailearen edo epaiaren ondorioz duen/duten mantenu-pentsiorako eskubidea baliatu ez izana.

Dagokion modalitatean, Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular gisa dituen betebeharrak, eta indarreko arauen arabera aplikatu beharrekoak diren guztiak, ez betetzea.”

Arrazoi horiek kexa-espediente honetan prestazioak erreklamatzeko prozeduraren xede izan direnen antzekoak dira. Lanbideko zuzendari nagusiaren 2012ko azaroaren 26ko ebazpenean, diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa jasotzeko eskubidea etetea erabaki zenean, ez zen aipatu etenduraren ondorioz itzuli beharreko zenbateko zehatzik; aitzitik, prestazioak erreklamatzeko prozedura hasteko aukera aipatzen zen orokorrean: *“Etendura honen ondorioz Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta bidegabe jaso dela egiaztatzen bada, bidegabe jasotakok kopuruak itzultzeko prozedura hasiko da, hala badagokio, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta arautzen duen maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 56. Artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz”.*

Kontuan hartu beharreko elementu gisa, garai hartan, Euskal Enplegu Zerbitzuak diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria prestazioak jasotzeko eskubidea etetea eta prestazioen erreklamazioa ebazten zituenean, ez zituen jasotzen une honetan eteteko ebazpenek jasotzen dituzten itzuli beharreko kopuruen informazioa, edukia eta xehetasunak.



2550/2013/QC kexa-espedita izapidetzean, Lanbidek Arartekoari erantzun zion aurreko ebazpenaren aurka aurkeztutako aukerako berraztertze-errekurtsoa ebatzi zela, eta baietsi egin zela. Era berean, Lanbidek jakinarazi zuen diru-sarrerak bermatzeko errentaren kontzeptu gisa, 3.383,33 € ordaindu zizkiola kexagileari 2012ko azarotik 2013ko maiatzera, hau da, diru-sarrerak bermatzeko errenta prestazioa eten zitzaion hilabeteetan.

Espediente hau aztertzeko datu interesgarri gisa, Lanbidek aurreko kexa-espeditan (2550/2013/QC) aipatu zuen atzerapenak zenbatzerakoan kontuan hartu zuela bizikidetzaren unitateko kideetako batek kotizazio gabeko pentsioa jasotzen duela, eta, beraz, informazio hori zuela.

6. Azkenik, argibide gisa, interesgarria da espediente honetan funtsezko hainbat gai jasota uztea.

Lehenik eta behin, kexagileak egiaztatu du 2012ko ekainaren 4an, 2012/93192 erregistro-zenbakiarekin, Barakaldo Hiriko Lanbideren bulegoan jakinarazi zuela Bizkaiko Foru Aldundiak bizikidetzaren unitateko kide bati kotizazio gabeko pentsioa eman ziola.

Bigarrenik, 2014ko irailean, Lanbidek jakinarazi zion 3.185,10 euroko zorra zuela 2012/REV/015923 jatorrizko prozedurari dagokionez (erreklamazio hau eragin duen jatorrizko prozedura bera). Kexagileak idatzi bat aurkeztu zuen 2014ko irailean, jakinarazpen horri erantzuteko. Idatzi horretan alegatu zuen Lanbidek jakinarazi zion zorra ez zela zuzena, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea etetea zuelako arrazoi, eta errekurtsu horren aurrean baietsi egin zela. Kexagileak alderdi horiek egiaztatzeko dokumentazioa erantsi zuen, eta eskatu zuen azal ziezaiotela zergatik eskatzen zitzaion zenbateko hori, baina ez zuen erantzunik jaso.

Hirugarrenik, 3.185,10 € erreklamatzeko prozeduraren ebazpena jakinarazi zitzaionean, ulertu zuen ez zizkiotela alegazioak baietsi, eta ez zuen aurkakotasunik agertu; izan ere, 2017ko urriaren 23an, 2017/346503 erregistro-zenbakiarekin, zorra ordaintzeko kuota txikiagoa zehazteko baino ez zuen eskatu, zehazki, hilean 30 € (lehen aipatu bezala, kexagileak, erratuta, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu zuen dirua itzultzeko prozedura hastearren kontra; baina, kasu horretan, alegazioak aurkeztu behar zitzaizkion prozedura hasteko jakinarazpenari).

Lanbidek ez zion onartu zenbateko txikiagoa, eta, beraz, kexagileak 270,58 € ordaindu behar izan ditu hilean, zorra osorik ordaindu arte.

Kexagileak kexa aurkeztu zuen Arartekoaren aurrean, eta Lanbideren jarduerarekin ados ez zegoela adierazi zuen.





Gogoetak

1. Kexa-espediente honen xedea da 2011ko urtarriletik 2012ko urrira bitarteko aldiari dagozkion 3.185,10 € erreklamatzea. Lanbidek zenbateko hori erreklamatu zuen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak 2012ko azaroaren 26an emandako ebazpenaren bidez diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa etetea erabaki zuelako. Aurreko ebazpenaren aurka aurkeztutako errekurtsua Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak 2013ko irailaren 26an emandako ebazpenaren bidez onartu zen. Lanbidek, errekurtsua baiestearen ondorioz, prestazioaren ordainketa legezko arrazoirik gabe eten zuen hilabetei dagokien zenbatekoa ordaindu zion kexagileari.

Lanbidek, hala ere, 2017ko maiatzaren 5ean prestazioak itzularazteko prozedura abiarazi zuen. Kexagileak, egindako erreklamazioaren aurka zegoela adierazteko, alegazioak aurkeztu zituen 2017ko maiatzaren 22an, eta, erratuta, berraztertze-errekurtsua deitu zion. Lanbidek 2017ko urriaren 6an amaitu zuen prestazioak erreklamatzeko prozedura, eta 3.185,10 € itzultzeko betebeharra adierazi zuen.

2. Kexa-espediente honetan Arartekoari bidalitako erantzunean, Lanbidek Arartekoari jakinarazi dio okerreko kobrantzak 8.699,00 eurotik 3.185,10 eurora aldatu zirela, errekurtsua baiesteko ebazpenaren ondorioz. Informazio hori ez dator bat 2550/2013/QC kexa-espedientean Arartekoari lehenago bidali zion informazioarekin. Espediente horretan, Arartekoari jakinarazi zion errekurtsua baiesteak kexagileari 3.383,33 € ordaintzea ekarri zuela, eta zenbateko horretan kotizazio gabeko pentsioa jasotzen zuen bizikidetz-unitateko kide baten diru-sarrerak hartu zituela kontuan.

Beraz, ez dago jasota 8.699,00 € erreklamatu zirenik edo zenbateko hori erreklamatzeko prozedurarik zegoenik; beraz, ez dakigu Lanbidek zer esan nahi duen erreklamaturako zorraren zenbatekoa murriztu zela erantzuten duenean.

3. Beste kontraesan bat ere gertatu da bidalitako lehen txostenari buruz egindako argibide-eskaerari erantzunez Arartekoari igorritako bigarren txostenean. Erantzun horretan, berritasun gisa, azaldu du erreklamaturako zenbatekoa hilean 318,51 euroko kotizazio gabeko prestazio bat kobratzeagatik sortutako zenbatekoa dela, berrikusitako aldiko 10 hilabeteetan. Baina informazio hori ez dator bat itzultzeko betebeharra erabakitzen duen ebazpenaren arrazoiarekin, ez eta kotizazio gabeko pentsioa kobratu den datekin ere; beraz, inkongruentzia bat dago, defentsa-gabezia eragiten duena, eta nahikoa izan beharko luke espediente honetako jarduketak berrikusteko.
4. Bidalitako bigarren txostenean Arartekoari jakinarazi zitzaion zorrak beste arrazoi ezberdin bat zuela. Zorra sortu zen ez zirela zenbatu bizikidetz-unitateko kide batek kotizazio gabeko pentsio gisa jasotako prestazioak.

Kasu honetan, zorrak jatorri hori badu, erreklamazio-ekintza preskribatu egin da, izan ere, kexagileak Lanbideri 2012ko ekainaren 4an jakinarazi baitzion Bizkaiko



Foru Aldundiak kotizazio gabeko pentsioa onartu zuela; Lanbidek, berriz, 2017ko maiatzaren 5ean hasi zuen prestazioak erreklamatzeko prozedura, eta, beraz, lau urte baino gehiago igaro dira Lanbidek itzultzeko betebeharra eragin zuen gertakariaren berri izan zuenetik.

Maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren (diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzkoa) 58.2 artikuluan honako hau xedatzen da: *“Jaso behar ez zirela jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharra preskribatu egingo da Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren eskubideei eta betebeharrei aplikatu beharreko araudiaren arabera. Preskripzio-epea administrazio eskumendunak itzultzebetebeharra sorrarazten duen gertakariaren berri duen egunetik hasiko da zenbatzen edo, halakorik badago, itzultze-ebazpenaren jakinarazpena gauzatzen den egunetik”.*

Artikulu hori aplikatuz, preskripzio-epea 2012ko ekainaren 4tik aurrera hasiko da zenbatzen, egun horretan jakinarazi baitzuen kotizazio gabeko prestazioa jaso zuela, eta, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren antolaketa-rauei buruzko Legearen 44. artikulua aplikatuz, honako hau preskribatu du:

1. *Euskadiko Ogasun Nagusiaren eskubideak preskribigarriak dira. Preskripzio-epeak zehazteko, bete beharrekoak izango dira eskubide horietako bakoitzari zuzen-zuzenean edo zeharka espezifikoki ezar dakizkiokeen xedapenak.*
2. *Aurreko paragrafoan aipatutako xedapen horietakorik ez badago, lau urteren buruan iraungiko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta bere erakunde autonomiadunek dauzkaten eskubide hauek:*
 - a) *Izaera publikoko eskubideak aitortzeko edo bere alde likidatzeko eskubidea, eskubide hori erabili zitekeen egunetik kontatzen hasita. Aitorpen edo likidazio hori egiteko beharrezkoa baldin bada aipatutako entitateen aurrean formulatutako adierazpena, orduan preskripzio-epea ez da kontatzen hasiko harik eta formulazio hori baldintza guztiak betez egiten den arte.*
 - b) *Aitortutako edo likidatutako izaera publikoko kredituak kobratzeko eskubidea, horien jakinarazpena eraginkorra den egunetik kontatuta edo, jakinarazpena nahitaezkoa ez bada, epemugatik kontatuta.*
3. *Nolanahi ere, eskubide publikoen preskripzio-epeak honako arrazoi hauek direla-eta eten daitezke:*
 - a) *Edozein administrazio-ekintza dela-eta: zordunaren ezagutza formalarekin egiten bada ekintza, nahiz eta dagokion jakinarazpena akastuna izan, eta ekintzaren helburua aitortzea,*



kitatzea edo kobratzea bada, edo aurreko hiru horiekin zerikusia badu.

b) Zordunak ekintzak burutzen dituenean, eta erreklamazioak edo errekurtsioak jartzen dituenean, nahiz eta legez ezarritakoak ez izan edo formulazio aldetik txarto eginda egon. Dena den, batzuek zein besteek zerikusia izan behar dute aurreko epigrafeek aipatzen dituzten eskubideekin; hala ere, bada salbuespen bat, alegia, erreklamazio edo errekurtsioen eskari nagusi eta bakarria izatea preskripzioa ontzat ematea edo aitortzea.

c) Zordunaren edozein jarduketa dela-eta, baldin eta jarduketa horren helburua aitortzea, kitatzea edo kobratzea bada, edo aurreko hiru horiekin zerikusia badu.

Aurrerago, preskripzioak ezartzen du noiz eten daitekeen epearen zenbaketa.

47. artikulua:

1. Lege berezietan ezarritakoa salbu, eskubide hauek lau urteren buruan iraingiko dira:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta bere erakunde autonomiadunek edozein obligazio aitortu edo likidatzeko duten eskubidea baldin eta obligazio horren aitortzea edo likidazioa eskatu ez bada horretarako baldintza guztiak betez eta justifikatzeko agiri guztiak aurkeztuz. Obligazioari dagokion zerbitzua edo prestazioa amaitzen den egunean hasiko da kontatzen epea.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta horren erakunde autonomiadunek dagoeneko aitortuta edo likidatuta dauden obligazioen ordainketa eskatzeko duten eskubidea, baldin eta ordainketa hori legezko hartzekodunek edo eskubidedunek eskatu ez badute. Obligazioaren aitortpenaren edo likidazioaren jakinarazpena eraginkor bihurtu den egunean hasiko da kontatzen epea.

2. Lege berezietan ezartzen dena salbuetsita, preskripzioa eteteko, ordenamendu juridiko pribatuko arauak esaten dutena bete beharko da. Dena den, ez dute atal honetako 1. lerroaldeko a) idatz-zatian aipatzen den eskubidearen preskripzioa etetea eragingo ondorengoek: obligazioak aitortzeko edo kitatzeko eskatzeak, atal horretan ezartzen diren baldintzak ez badira betetzen eskaria egitean.

Araudiak, beraz, lau urteko preskripzio-epea aurreikusten du, eta preskripzio-epe hori eteteko modua ezartzen du. Kexa-espedita honetan azaldutakoa kontuan





hartuta, ez dago jasota aurreko lau urteetan zuzenbidean baliozkoa den eta etete-ondorioak dituen erreklamazio-ekintza bati ekin zaionik.

Kexagileak 2012ko ekainaren 4an jakinarazi zion Lanbideri kotizazio gabeko pentsioa onartu zitzaiola, eta Lanbidek 2017ko maiatzaren 5ean hasi zuen bidegabe jasotako prestazioak erreklamatzeko prozedura; beraz, lau urte baino gehiago igaro dira. Nahiz eta 2014ko irailean erakunde publiko horrek zorra zegoela jakinarazi, Arartekoaren iritziz, jakinarazpen horrek ez du balio preskripzio-epea eteteko.

2014ko irailean igorritako jakinarazpena ez zen gauzatu Legean ezarritako eskakizunak betetzeko. Arartekoak hainbat jarduketa egin zituen jakinarazpen horiek bidaltzeko.

Lanbidek jakinarazpen ugari bidali zituen 2014ko irailean, bidegabe ordaindu zirela uste zuen zenbatekoak erreklamatzeko. Arartekoak ebazpen bat³ egin zuen jarduera hori aztertzeko; honako hauek dira ondorioak:

Gizarte bazterketa egoeran edo horretarako arriskuan zegoen jende askorengan nahasmena eragin zuen, eta babesgabetasuna eragin ahal izan zuen 2012. Urteari zegokion zorrari buruzko aurretiko jakinarazpena bidaltzeak, Lanbideren jakinarazpenetan hutsuneak egon ziren urtea izaki, ez baitzegoen bidegabe jasotako prestazioen jatorriari buruzko informazio eskaerei zehaztasunez erantzuteko bitarteko nahikorik.

(...)

Bidegabe jasotako prestazio ekonomikoen jatorriari, arrazoiei eta kontzeptuei buruz xehetasunez informatzeko ahalegina egiten jarraitu behar du Lanbidek, eta kontuan hartu beharko ditu aurkezten diren arrazoibideak, zorrari buruzko jakinarazpenarekiko adostasuna erakutsi duten gorabehera. Prestazioak bidegabe jaso ez direla ondorioztatzen den kasuetan, espedientea berrikusi beharko litzateke.

Kasu honetan, gainera, kexagileak jakinarazpen horri erantzun zion, eta bere desadostasuna adierazi zuen eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak 2013ko irailaren 26an emandako ebazpenaren bidez aukerako berraztertze-errekurtsoa baietsi izana aipatu zuen; era berean, erreklamazio aurkezteko arrazoiei buruzko argibideak eskatu zituen baina ez zuen erantzunik jaso.

³Euskadi. Arartekoa. Arartekoaren 2015NI-2120-14 Ebazpena, 2015eko ekainaren 8koa. Horren bidez, Lanbidek bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzeko eskatzeko jarraitu zuen prozedurari lotuta egindako jarduera bukatu zen [linean]. Hemen eskuragarri:

https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_3730_1.pdf



Lanbideren jardunik ezak (ez baitzion erantzun kexagileak 2014ko irailean aurkeztutako idatziari eta ez zuelako berrikusi edo abiarazi zuzenbidean baliozkoa den erreklamazio-prozedurarik 2017ko maiatzera arte), Arartekoaren ustez, erreklamazio-ekintzaren preskripzioa dakar, denbora horretan ez baitzen inolako ebazpenik eman preskripzioa eteteko.

5. Arartekoak beste kasu batzuetan adierazi izan duen bezala, ⁴Iraungitzearen ezarpen juridikoa lotuta dago segurtasun juridikoaren printzipioari, EKren 9.3. artikulua, eta zuzenbidezko estatu baten funtsezko balioen artean dago. Segurtasun juridikoaren mesedetan, pertsonak eskubidea du bere egoera juridikoa modu eztabaidaezinean definitzeko zentzuzko denboratarte batean. Prestazioak edo laguntzak ematen dituen administrazioak arreta handiz egiaztatu behar ditu aurrekontu publiko baten kargura egiten dituen datuak.

Espediente honetan antzemandako gabeziek edukiari zein formari eragiten diete. Ez zegoen prestazioak erreklamatzeko prozedura abiarazteko betearazpen-titulurik, hizpide zuen etendura baliogabetu egin baitzen. Era berean, ezin dira ordaindutako prestazioak erreklamatu lau urte baino gehiago igaro direnean Lanbidek itzultzeko betebeharra eragin zuen gertakariaren berri izan zuenetik, hau da, kexagileak bizikidetz-unitateko kide bat kotizazio gabeko pentsioaren jasotzailea zela jakinarazi zuenetik. Azkenik, 2014ko irailean igorritako jakinarazpenak ez du preskripzioa eteten, hortik ez baita ondorioztatzen zuzenbidean baliozkoa den eta prestazio publikoak itzultzeko araudia betetzen duen ebazpen bat.

Arartekoak, beraz, Lanbideri gogorarazi behar dio, erakunde publikoa den aldetik, Legearen agindupean dagoela, Administrazioari ahalak esleitzeko mekanismo bakarra baita (EKren 103. artikulua): *"Herri Administrazioak objektibotasunez betetzen ditu interes orokorrak, eta eragingarritasun-, hierarkia-, dezentralizazio-, deskontzentrazio- eta koordinazio-printzipioen arabera dihardu, legeari eta zuzenbideari bete-betean men eginez"*.

Printzipio angeluarra da Zuzenbidezko Estatu batean, uneoro aplikatu behar dena (EKren 9.1 artikulua): *"Herritarrak eta botere publikoak Konstituzioaren eta antolamendu juridikoaren gainerako arauen menpe daude"*.

Horregatik guztiagatik, erakunde hori sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, Arartekoak honako hau formulatu dio Lan eta Enplegu Sailari, azaldutako guztia oinarri hartuta:

⁴ Euskadi. Ararteko. Arartekoaren 2020R-2341-17 Ebazpena, 2020ko maiatzaren 20koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala herritar bati bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko betebeharra ezartzen dion ebazpena, erreklamazio-ekintza preskribatu baita [linean]. Hemen eskuragarri: https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4981_1.pdf



GOMENDIOA

Berrikus dezala diru-sarrerak bermatzeko errentaren kontzeptu gisa 3.185,10 euroko zenbateko bat itzultzeko betebeharra (dagozkion legezko ondorioekin) ezartzen duen ebazpena, eta erabaki dezala zorra konpentsatzeko deskontatutako zenbatekoak itzultzea, antzemandako gabeziengatik eta prestazioak erreklamatzeko prozedura erreklamazio-ekintzaren preskripzio-epearen ondoren hasi delako.

